

Goierriarra

276. zenbakia 2005eko otsailak 25



Badator
Korrika

Juan Joxe Agirreren lan

NEKAEZINA

susmopean



KORTA

ERRETEGIA
MARISKERIA

*Zatoz martxoaren 6an Gabiriako
VII. Rallysprinta ikustera !*

Menu bereziak
Eguneroko menua
Karta
Mariskadak, haztegi propioak

☎ 943 88 71 86

GABIRIA



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



R.P.S.: 32/04



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

BERTSOTAN



Iker Zubeldia

Guardia zibilak komentuan

Irrati bidez entzun genuen beneditarren berria praileren batek egin zuela pekaturen bat larria guardia zibilen jakinduria ez da oraingo berria Aita Santua izan daiteke hurrengo susmagarria.

Madrilen hala agindu eta haiei ohore eginik komenturaino hurbildu ziren maliziak eraginik eurek bilatu nahi zuten hura ez zegoela jakinik ez genekien guardia zibilak hain kristau finak zirenik.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424

647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Iraola

7. Errezeta: Urdaiazpiko eta otarrainxkekin salteatutako onddoak

Aholkua: Oinetako ona, oin osasuntsuaren oinarri

8. Kate motzean: Aitor Calvillo

9. Erreportajea: Aita Juan Joxe Agirre


14. Erreportajea: Korrika

18. Elkarrizketa: Hegats-igeriketa

22. Mundutarrak Goierriin: Atzerriko langileak normalizatzeko prozesua

24. Debaldeko iragarkiak

26. Argazki zaharra: Zeraingo eskolakoak 1970 inguruan

Goierritarra Goierriz kanpo jasotzeko tarifa:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro

Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Xabier Iraola Agirrezabala

Agenda 21

Urtearen hasierarekin batera Legorretako udalak Udala Agenda 21ari ekitako asmoa berretsi du eta horretarako lehen urratsak ematen hasia da.

Gure herriko hainbat bizilagunen (gutxinekoak baina oso kazkagorrek) ohitura txarrak ekiditzera bultzatu asmoz, A21ko teknikariek egindako txostenak azaltzen dituen puntu batzuk komentatzera nator, hain zuzen ere, aurrez esandakoarekin bat egiten baitute.

Txostenak dionaren arabera 2002 urtean Legorretako herrian 820 ibilgailu zeuden (1000 biztanle bakoitzeko 598 ibilgailu) baina 1996an 714 ziren (1000ko 500) eta 1985ean azkenik, 531 ibilgailu (1000 biztanle bakoitzeko 330 ibilgailu). Beraz datu hauekin soilik, berehala ikusten da, herrian dauden ibilgailu kopurua ia bikoiztu egin dela 17 urteetan eta ondorioz, edozeinek pentsa dezakeen bezala, arazoak ere areagotu egin dira.

Azken urteotan herriak izan duen garapen urbanistikoaren ondorioz etxeak ugaltu egin dira, kale berriak ireki dira, espaloiak zabaldu eta oinezkoentzako gu-

neak irabazi, kamioientzako aparkaleku berezia ireki da baina hala ere, ugaltzen ari diren ibilgailuen aparkamendu arazoa ere larritzen.

Zergatik ote da? Erreza, gure erosotasuna eta alperkeriarengatik. Ez dago ez, beste esplikaziorik kale berrietan eta N-1ean sortutako aparkalekuak ikusirik, argi baitago, jendeak nahiago duela espaloi gainean, oinezkoen pasabideetan edota beste edozein leku aldrebasean uztea, bere etxea, taberna, okindegi, etb. baino dituen 200 metro oinez egitea baino.

Txostena egiterakoan inkesta erantzun duten legorretarrek diotenez, ingurugiro alorrean gehien kezkatzen dituen gaia airearen kutsadura da (neurri handi batean ibilgailuek sortutakoa) eta beste atal batean dio, legorretarren erdia (%50) ez dagoela prest bere bizimodua eta ohiturak aldatzeko ingurugiroa hobetzeko. Kontraesan penagarria bezain argigarria.

Eta amaitzeko, neure buruari egiten diodan galdera: legorretarren bizimodua hobetzeko bada ere, ez al du merezi (neure burutik hasita) gure eguneroko zereginetan (kafea hartu, ogia erosi, enkar-gutxoak, etb) ibilgailua gutxiago erabiltzea eta erabili behar dugunetan, oinezkoa eta beren eskubideak eta lekuak gehiago errespetatzea?

Hala ere, beldur naiz, 'betikoak' aipatu dudana %50ean daudela eta tamalez ere, ez dutela nire filipika hau irakurriko.

Herrian dauden ibilgailu kopurua ia bikoiztu egin da 17 urtetan.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Zure negozioan, atera probetxua telefonia mugikorrari

Telefono mugikorra eguneroko lanean funtsezko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioko informazioa egunean edukitzeko, gailu eta aukera berrien** bidez eskaintzen dituen erabilera eta aplikazioak erakutsiko dizkizugu. Honela, alferrikako deirik edo bidaiarik egin ez dezazun.

Sustatzaileak:



Euzko Lehiaketa Sustatzeak
Euzko Lehiaketa Sustatzeak

euskadi
Euzko Lehiaketa Sustatzeak

e-gipuzkoa

SPRI

Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Goierrri - Urola Garaia
martxoak 3

ORDIZIA

Goierrri Lanbide Eskola

Ordutegia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com



kutxa

gizarte ekintza

Aizkorri-Aratz, Natura 2000 sarean

Natura 2000 sareak Europako naturgune adierazgarrien sarean izan nahi du, horrela, naturgune horiek, pairatzen ari diren degradazioari aurre egiteko. Sare horren eraketa estatuentzat erronka berri bat da, ingurumen-kalitatearen eta biodibertsitatearen inguruko Europako helburu orokorrak betetzea eskatzen baitu.

Natura 2000 sareak hegaztien babesgune bereziak eta babes bereziko eremuak izango ditu. Eusko Jaurkitzak, sare ekologiko europarrean sartzeko lekuak proposatu ditu, horien artean Aizkorri-Aratz, Garrantzi Komunitarioko Lekutzat (GKL) hartzeko eskatuz. Ondoren Europako Batzordeak egindako aukeraketa eta onarpen prozesua jasan beharko dute toki horiek, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuak izan aurretik. Ikus dezagun bada, zein arrazoiengatik proposatu den Aizkorri-Aratz Natura 2000 Sarean sartzea.

Aizkorri-Aratz mendizerra Gipuzkoako eta Arabako Lurralde historikoen arteko mugan zehar kokatzen da. Guztira 14.947 ha hartzen ditu. 11 udalerrrik eta Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusiak osatzen dute.

Bost Mendi lerrok osatzen dute Aizkorri-Aratzeko mendigunea. Altzania, Aizkorri, Urkilla, Elgea eta Zairaia. Bertako mendirik altuena Aitxuri da, (1.551 m). Mendi lerro hauetan jaiozen diren Oria, Urola eta Deba ibaiek beren urak Kantauri Itsasora isurtzen dituzte. Barrundia, Arakil,

Añarri eta Otzaurte ibaiek berriz, beraien urak Mediterraneo Itsasora isurtzen dituzte.

Paisaiari dagokionez; batez ere, arrezife-jatorria duen, kareharrizko multzo garrantzitsu batek osatzen du Aizkorriko nukleo nagusia, eta inguruko mendi sili-zeeen forma biribilduen artean gailentzen delarik mendizerra. Aizkorri-Aratz mendilerroa, kareharrizkoa eta irtengune ugariak da. Kareharri zuri hauetan, formazio karstiko ikusgarriak sortu dira, eta balio estetiko eta ekologiko handia duen paisaia eratzen dute, hala nola, Urbia, Degurixa edo Lezeko Mendiarte, Kataberako karst malkartsua edo Arantzazu ibaiaren arroila. Urkilla-Elgea mendilerroak berriz, askoz ere erliebe leunagoa du. Batez ere, bizkar-itxurako mendi-hegalak eta uhin-itxurako ton-tor-lerroa ditu bereizgarri. Baina hala ere, paisaia aldatu egin dute parke eolikoa jarri zenetik, eragin handiena bisuala delarik. Bai Araba eta Gipuzkoa aldetik ikusten direlarik. Zairaia mendilerroan berriz aipatzekoak dira Kurutzeberri eta Orkatzategiko malda handiak. Kalitate handiena duten unitate paisajistikoen artean honakoak aipa ditzakegu: Aizkorri-Aratz-Aloña mendiak, Urbia eta Degurixako depresioak, Arantzazu eta Jaturabeko arroilak, Urkuluko urtegia eta honen inguruak, eta Aizkorri hegoaldean dagoen zona karstikoa.

Landaredi aldetik, aipatu beharrekoak da Aizkorriko mendizerran dagoela EAE-

ko pagadi-masarik garrantzitsuenetako bat. Pagadi kaltzikolak eta azidofiloak hauek Gipuzkoa aldean aurkitzen dira. Baso naturalen barnean urkidiak, pagadiak, ameztiak, ezkameztiak, hariztiak, artadiak, eta ibai bazterretan erriberako landaredi baliotsua garatzen diren ur bazterreko landareak aurki ditzakegu.

Fauna interesgarriaren babeslekua da ingurune hau: lepahoria, lepazuria, muxar grisa, orkatza, basakutua eta saguzar espezie ugari.

Aizkorriko harkaitz malkartsuetan sai arrek eta sai zurien bikote batzuek egiten dute habia eta horiekin batera, belatz handiak, belatzak, belatxinga moko horiak, belatxinga mokogorriak eta erroiak ikus ditzakegu. Eta hegazti migratzaileek, usok, antzarek edo kurriloek, Aizkorriko oztopoa saihesten dute udazkenean hegoalderantz doazenean. Aurki ditzakegun urmaeletan anfibioak umeztzen dira: baso-igel iberiarra eta gailurretako uhandrea.

Ingurune honetan basogintza eta abeltzaintza dira nagusi, abeltzaintzaren barnean artzaintzak duen indarrik handiena. Garai bateko lanbide zen ikazgintzarek azarnak argi eta garbi ikus litezke inguru hauetan. (www.nekanet.net web gunean informazio gehiago aurki dezakezue eta Natura 2000rako proposaturiko gune guztien zerrenda eta informazioa).

*Landarlan Ingurumen
Elkartea*

LIBURUA

“Gente que no quiere viajar a Marte”. Ensayos sobre ecología, ética y autolimitación. Libros de la Catarata. Jorge Riechmann, 2004. ‘Hementxe daude’, entepresetan, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketa zentroetan, komunikabide nagusietan. Lehen begiradan izaki arruntak ematen dituzte, baina espaziotik etorritako martiztarrek dira. Beraien uste sendoen arabera, ez gara Lurreko izakiak, baizik eta ‘Unibertsoko masterrak’, gure patua, lehendabizi eguzki sistemaren konkista eta ustiaketa, eta ondoren urrutiko izarretakoa delarik. Gainera, gure planetan egun batzuetarako baka-rik daudenez, zaborra bezala tratatu daitekeela uste dute, erabili eta botatzeko biosfera bat bezala. Halaxe dio Jorge Riechmannek liburu honetan, Lurra zaborra bezala tratatu eta espaziora ihes egiteko prest dauden produktibistek mugimendu ‘antropofugo’ zabal eta konplexua osatzen dutela dio.

JAKIN BEHARREKOAK

Poluzio-hautsa mutazioen eragile: Lantegiek, energia-zentralek eta autoek igortzen dituzten kedar-partikula mikroskopikoek osasun-arazoak eragin ditzakete kantitate handiak arnastuz gero. Saguekin egindako ikerketa berri baten arabera, gainera, poluzio-mota horrek kalte genetikoak sortzen ditu, eta kalte horiek hurrengo belaunaldietara pasa daitezke. Bestalde, ikusi dute ere, aire-filtroek babes handia eman dezaketela, % 50 gutxitzen baitituzte kalteak.



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziarren hazkundea.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. **Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.**

12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean

Garapen iraunkorra ezin da lortu beste herrialdeetan edo lekuetan inportatuak eraginez, ez eta ondorengo belaunaldiak, beren beharrak asetzeko baliabide eta ingurune osasuntsu eta dibertsorik gabe utziz.

Zentzuzko kontsumoa

Zentzuzko kontsumo baten bidez hainbat gauza alda ditzakegu. **Aldaketa handiak erabaki txikiak eragiten dituzte.** De-

nok dakigu adibidez hegoaldeetik datozen produktuen prezioak merkeegiak direla ekoizleek soldata duin bat izateko. Bidezko merkataritzako produktuak kontsumituz ekoizle eta kontsumitzaileen arteko katea motzagoa da. Bestaldeetik kontsumitzaileak ohartzen hasiak gara gure kontsumoarekin ingurumenarekiko, langileekiko edo hegoaldeko lurraldeekiko jarraera onartezina duten enpresak zigortu ditzakegula.

Ez da beharrezkoa ezeren errudun sentitzea, baina erantzukizuna dugu gauza guztietan (Ramón Folch)



Nazio Batuek, duela 3 hamarkada, helburu bat ezarri zuen: 'lurralde aberatsenek bere Barne Produktu Gordinaren (BPG-PIB) % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialetarako ematea'. 80. hamarkadan lan-kidetza deszentralizatua ematen hasi zen, Udalerrien arteko anaikidetasunak emanez. Euskal Autonomi Erkidegoan, 90. hamarkadan, Garapenerako Elkarkidetzaren alde lan egiteko egiturak ezarri ziren bai Eusko Jaurlaritzan bai eta Udal nagusienetan eta Foru Aldundietan ere. Denon erantzukizuna da, ordezkari politiko- ei bete dadin exijitzea, ematen diren lan-kidetzak kalitatezkoak eta gardenak izatea eskatzea.

Ondorengo belaunaldiak

Garapen Iraunkorrari buruzko Johannesburgeko Deklarazioak beste puntu askoren artean hau dio: "...munduko haurrek, hitz soil eta argiz, esan digute etorkizuna haiena dela eta honako erronka bota digute: gure ekintzei esker pobrezia, ingurumenaren degradazioa eta garapen jasanezina sortzen duten gizatzarkeriarik eta laidorik gabeko mundua hereda dezaten." Norberak gure eguneroko bizitzan dugun jarreraren ausnarketa bat egin beharrean gaudela eta gure esku dagoen hura lortzen saiatu.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

SUKALDEAN



Lontxo Ormazabal
Korta jatetxea
Gabiria

Urdaiazpiko eta otarrainxkekin salteatutako onddoak

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 400 gr. onddo
- 300 gr. otarrainxka, zurituta
- 100 gr. Jabugo urdaiazpikoa, tiratan.
- 2 baratxuri ale.
- Goilarakada bat, perrexil txikitu.
- 3 goilarakada, haragi salda.
- 3 goilarakada olio.
- Gatza.

Zartagian olio eta baratzuri txikituak jarri, su ertainean. Kolorea hartutakotan, xerratan moztutako onddoak bota eta 4 minutuan eduki. Jarraian, zuritutako otarrainxkak eta urdaiazpiko tirak bota. Gatza bota, haragi salda gehitu eta perrexil txikitua bota. Hiru minutuan eduki.

Oinetako ona, oin osasuntsuaren oinarri

Oinetakoak, neurri handiagoan edo txikiagoan, oinaren mugimendu naturalak aldatzen dituela esan liteke. Oinetakoak erabileraren arabera diseinatzen dira, hala ere, kontrolatzea komeni den mugimenduak badaude, baita oinetakoak eraginik izan behar ez duten mugimenduak ere.

Kaleko oinetakoen ezaugarriak:

● Behatzen mugimendu normala errespetatu behar du; punta estudun oinetakoarekin ibiltzeak, non behatzek ez duten nahiko leku mugitzeko, behatz lodiarren eta behatz txikiaren desbiazioa dakartza, hauek tarteko behatzen gaieran

jarritz, eta martxa aldatuz.

Punta estuko oinetakoei 'juanete' bezala ezagutzen dugun deformazioa areagotzen du. Takoi altuak erabiltzeak ere bai. Behatz lodiarren artikulazioan azaltzen denean, 'Juanete' bezala ezagutzen da deformazio hau, eta behatz txikiaren artikulaziokoa 'Sastrearen Juanetea'.

● Oinetakoaren larruak erdiflexiblea izan behar du eta saihestu oinetakoaren barruan dauden josturak, oinaren azala ez zauritzeko.

● Kontrafuerte; orpoaren egonkortasuna hobetzeko, oinetakoaren atzealdean, kontrafuerte sendoa jartzea aholkatzen da. Honek orpoaren ehun adiposoa ondo

biltzen laguntzen du eta honela amortiguazioa gehitzen da.

● Takoia; 2 edo 3 zentimetroko altuera baino gehiago ez duen takoiak, Akiles tendoa erlaxatuta mantentzen laguntzen du. Gehiegizko altuerak, orkatilaren mugikortasuna gutxitzen du, ezegonkortasuna gehituz.

● Zorua; gomazkoak edo kautxozkoak oso egokiak dira amortiguazioarako eta urradurarak saihesten ditu. Zoruaren flexioak behatzen flexioarekin bat etorri behar du, bestela, ibiltzerakoan, giharren nekea eragingo du.

Azkenik, oinetako on bat ez da derrigorrean prezio altukoa izan behar.



Ainara Etxeberria
Podologoa
Hankara

Arkupé

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



KRISTALDEGIA


ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



“Euskal Herria euskalduntzen pausoz pauso, baina beti aurrera”

Euskararik ikasi nahi ez duenari zer esango zenioke?
Euskaltegiko atea beti izango dituela zabalik.
Eta jakin arren erabiltzen ez duenari?
Mintza lagun talde batean izena eman dezala.
Beste hau berriz askotan saiatu da, baina oso zaila omen da ikastea.
Begira, kanpotik etorria den horrek zein azkar ikasi duen!
Euskarak oraindik 'Korrika' ren beharra al du?
Zoritzarrez ekonomikoki eta zenbaiten kontzientziak pizteko, bai.
Euskal Herriaren euskalduntzea korrika ala oinez lasai-lasai?
Pausoz pauso, baina beti aurrera.
'Korrikan' korrika egingo al duzu, ala antolatzaileen furgonetan joango zara izerditu gabe?
10 kilometro baietz (korrika, noski).
Euskara irakasle bezala jaso duzun pozik handiena:
Behin ikasleek euskaltegia utzi eta gero ere, nirekiko harremana ez dutela galdu.
Eta nahigabea:
Hainbat egoeraren aurrean euskaraz aritzeko prestatu ikasleak eta benetan hori ez gertatzea gero.

Zerk sortzen dizu barrea?
Hainbat agintarik ezezkoa esateko duten erraztasunak.
Eta negarra?
Instituzionalki euskara hain baztertua egoteak.
Egin duzun erokeriarik handiena?
Erabat elurtuta, autoa hartu eta sagardotegi batera joan.
Bizio bat:
Prensa irakurtzea.
Zaletasun bat:
Sagardotegietara joatea.
Gustuko jaki bat:
Egur-ikatzean prestatutako txuleta.
Edari bat:
Sagardoa.
Ordizia:
Bertan jaio, hazi eta oraindik bizileku dudana herria.
Goierriko txoko bat:
Pagorriaga, Oiangu, Lazkaomendi, Urbitarte Sagardotegia...
Oporretarako leku bat:
Euskal Herria.
Amets bat:
Inoiz Euskal Herria euskalduna izatea.

ZUZENKI

AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net

IÑAKI ARIN


Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



Aita Juan Joxe Agirre ere susmopean

*ETArekin lotura
izatea leporatuta*

Aita Juan Joxe Agirre beneditarrak ez du berehalakoan ahaztuko 2005eko otsailaren 11. Guardia Zibila ate joka etorri zitzaion, atxiloturik zegoela esanez, ETAren korreo lana egiten zuela leporatuta. Dena den, "guardia zibilak komentzitu" egin zituela-eta, aske utzi zuten beneditarra. Ez da lehenengo aldia Polizia liburutegian sartzen dela, frankismo garaian ere bi aldiz sartuak dira. Ia astebetera harrapatu genuen beneditarra, oraindik ere urduri eta kezkatu, gertatuko ezin burutik kendu.

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

"Eman pakete hau Marzel Etxehandi Belokeko liburu-zainari. Lazkaoko liburuzaina etorriko da bila" idatzita zegoen paperen bat aurkitu omen zioten Mikel Albisu 'Antza', ustezko ETako buruzagiari, atxilotu zutenean. Hari horretatik tiraka, Lazkaoko beneditarren komentura iritsi zen Guardia Zibila otsailaren 11n, Le Vert eta Garzon epaileen aginduz, Aita Juan Joxe Agirre atxilotzera.

ETarekin harremana izatea leporatu dizute.

Mikel Albisu 'Antza' ren paperekin nire izena azaltzen zela esan zidaten. Nik esan nien, nire izena leku askotan aurkituko zutela. Europa mailako unibertsitate askotatik etortzen dira hona ikerketa lanak egitera eta haiek guztiek nire izena daukate. Nire lanari esker, ideia ezberdinak jendearekin izan ditut harremanak. Ernest Lluch, PSOEko ministro ohia, ETak hil aurretik, hilabete pare bat lehenago, hemen izan zen. Emaztea eta biak etorri ziren.

Ia astebete pasatuta, nola gogoratzen duzu otsailaren 11?

Bi guardia zibil ate joka etorri, atxilotu agindua zutela eta Madrila eraman behar nindutela esan zidaten. Lehenengo bi, baino gero 15 bat gehiago etorri ziren. Artxibora ez nituen eraman nahi baina sartu egin ziren.



"Nire lanari esker, ideia ezberdinak jendearekin izan ditut harremanak. Ernest Lluch, PSOEko ministro ohia, ETak hil aurretik, hilabete pare bat lehenago, hemen izan zen", dio Juan Joxe Agirre beneditarrek.

Jarraia-Haikari buruzko kajak ikusi zituzten eta oraingoan kartzelara eramango nindutela pentsatu nuen. Hemen go Guardia Zibila etengabe Baltasar Garzon eta Le Vert epaileekin hizketan aritu ziren, telefonoz. Beloken atxiloturik zegoen Marcel Etxehandiri eta biori, batera egiten zizkiguten galderak. Gogorra izan zen.

Harrezkero ondo lo egin al duzu?

Aurreneketan ez nuen bate-re ondo lo egin. Bularrean izugarrizko mina nuen. Atxilotetaren egunean, ez nuen ezertxo ere jan. Ko-

Bi guardia zibil ate joka etorri, atxilotu agindua zutela eta Madrila eraman behar nindutela esan zidaten.





izal

IMAZ eta CONTRERAS IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045



GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687
Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Madrila eramango nindutela uste nuen, mediku forensearekin egoteko eskubidea nuela esan zidaten.

munera joaten ere ez zidaten utzi. Gogortuta nengoen. Oso gogorra izan zen. Inkomunikatuta eduki ninduten, ofizioko abokatua etorri zenean hasi zen galdeketa. Abokatua ezagutzen nuen, oso jatorra zen, guztiari ezezkoa esateko esan zidan.

Ezer eraman al zuten?

Nik beldurra neukan, baina ez zuten ezer eraman. Loturaren arrastoa besterik ez zuten atera nahi. ETaren Zutabe aldizkariaren azkeneko aleak aurkitu nahi zituzten, lotura hori argudiatzeko. Ez neukan. Halako egunetan Belokera joan nintzela esaten zidaten. Ni Belokera azkeneko aldiz, duela urte eta erdi edo bi urte joan nintzen. Gainera nik ez daukat gida baime-nik eta norbaitek eraman beharko ninduen. Azkeneko Zutabea izango banu, zuzenean paketea hartu nuela eta hemendik banatu-

ko genuela esango zuten. Horren atzetik zebiltzan.

Zutabeak beraiei eskatu nizkien. Atxiloketetatik izango zituztela esan nien.

Momenturen batean pentsatu al zenuen Madrila eramango zintuztela?

Seguru-seguru nengoen. Mediku forense batekin

egoteko aukera jarri zidaten. Nik lanaren berri eman nien eta komentzitu egin nituen. Materiala gordetzen ez bada zer aztertuko den galdetzen nien. Kanpotik gauzak beste era batera ikusten zirela aitortu zidaten. Harrituta gelditu ziren: hau dena ea nik bakarrik



Guardia zibilak Beneditarren komentutik ateratzen.
Arg.: Arkaitz Apalategi.

Kaputxa beltzak, maleta beltzak...

Otsailaren 11n Lazkaoko beneditarren komentuarien kanpoaldean kaputxadun beltzen joan-etorria ikusten zen. Materiala eramaten ari zirela uste bazen ere, Aita Juan Jose Agirrek argitu digu sekretua. "Maleta beltzetan ez zuten ezer eramaten. Sofistikazio handiko maletak ziren, tri-pak irekitako bezalako ordenagailu bat bezala zen. Lurrean jartzen zituzten. Ez dakit zer ziren".

15 bat guardia zibil sartuko omen ziren barrura. "Honaino kaputxa beltzarekin etortzen ziren, barruan kendu egiten zuten", zehaztu du.

Galdeketa guztia bidez grabatu omen zuten.

egin dudan galdetzen zidaten. Komentzitu egin nituen.

Aktaren kopia eskatu omen zenien amaieran.

Bai, baina sekretupean zegoela eta ezin zidatela eman esan zidaten.

Ordenadorean akta idatzi zuten guardia zibilek eta aldaketarik egin nahi banu, egiteko esan zidaten. ENAM-eko (Euskal Herriko Nazio Askapen Mugimendua) materiala zegoela zioen aktak. Ondo ez zegoela esan nien nik, ez zela egia. ENAMeko materiala artxibo guztiaren lautik bat izango zela esan nien. Guk erakunde ezberdinetako materiala biltzen dugula esan nien. Azkenean, erakunde politiko guztietako materiala zegoela jarri zuten, tartean ENAMekoa. Abokatuak ondo zegoela esan zidan eta horrela utzi nuen. Beste materiala asko ere badut, elizakoa adibidez. Komeni zitzaiena ikusi nahi izan zuten.

Egunean bertan eta ondorengo egunetan, jendearen elkartasuna handia izan zen.

Hala izan zen. Montevideotik eta Nevadatik ere deitu didate, gogor eusteko esanez.

Gertatutakoaz zein gogoeta egiten duzu?

Hanka sartze izugarria izan da. Nik uste dut beste era batera egin zitekeela, isil-isilik galdetuta.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58


Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Euskal Herriko gaietan oinarritutako artxiboa da Lazkaoko beneditarren komentuko artxibategia, 30 urte baino gehiagoan, Aita Juan Joxe Agirrek osatu duena. Ideia eta gai ezberdinetako dokumentuak eta materiala bildu eta txukun ordenatu ditu. Euskal Herriko historia garaikidearen lekukotza garrantzitsuak aurki daitezke bertan, dokumentu eta ale asko gainera, bakarrak direnak.

Liburutegi pribatua izan arren, bisita gidatuak egin ohi dira. Mundu osoko ikertzaileek erabili dute beneditarren artxibategia, tesiak, doktoretzak eta ikerketa soziologikoak egiteko.



Euskal Herriaren altxorra

1973. urtean hasi zen Aita Juan Joxe Agirre, liburutegia eta artxibategia osatzen. Lan honetan nola hasi zen laburbildu digu alegiarak. "Gure lana ez zela eta, irakaskuntza lana utzi egin genuen. Langintza berriak aurkitzen hasi ginen eta batek esan zuen, liburuak bagenituela, artxibatu egin beharko lirakekeela. Nagusia, ustez liburutegia eramateko gai zirenei galdetzen hasi zen baina niri ez zidan galdetu, ni bizitza guztian irakaskuntzan aritua baintzen. Ni prest azaldu nintzen liburutegia eramateko eta bolada bat hemendik kanpo pasatzeko. Kanpora joateko beharra nuen. Bibliotekonomia ikastera Bartzelonara joatea aukeratu nuen. Montserrat inguruan egon nintzen. Artxibozain lanean bokazio-rik gabe hasi nintzen, baina denborarekin gustua hartzen joan nintzen. Katalanak kultura aldetik gu baino aurreratuagoak egon di-

ra beti. Haiek ordurako hasita zeuden, Kataluniari buruz bertan eta diasporan zegoena biltzen. Euskal gaiak ere bazituzten. Euskal Herrian ere gauza bera egin nezakeela ikusi nuen. Orduan hasi nintzen kontzientziatzen. Bartzelonatik etorri eta lehenengo egin nuen gauza zera izan zen: oharren lekuan, ordutik aurrera komentura iristen ziren egunkariak eta aldizkariak bere lekua zutela eta, ez botatzeko adieraziz".

Berehala hasi zen materiala pilatzen. "Eskuz esku pasatzen ziren Eusko Deia biltzen hasi nintzen. Bati eta besteari galdetu eta biltzen hasi nintzen".

Amerika aldera ere luzatu zuen deia. "Izugarriz-

ko kultur lana egin zuten Amerikara ihesi joandako euskaldunek. Euskal Etxeetan, euskal familietan... bandoa zabaldu nuen, Euskal Herriarekin lotura zuen materiala bidaltzeko esanez. Izugarrizko erantzuna izan zuen bandoak".

Diasporan argitalpen ugari kaleratu ziren eta gaur egun digitalizatzen ari dira, Eusko Jaurlaritzarekin batera. Teknologia berriak ere iritsi dira Lazkaora. Harribitxi ugari ditu Aita Juan Joxek eta bat, azpimarratu digu, diasporako argitalpenekin lotua: "Europar eza gutzen den bilduma bakarra, 19 urtez argitaratu zen Euzko Abertzale Ekintza taldeak ateratako Tierra Vasca. Izugarria da".


Beti eskean

"Ijituak bezala ibilita nago ni, eskean eta eskean. Oraindik ere asko eskatu egin behar da", azpimarratu digu beneditarrak. 40.00 ale baino gehiago biltzen ditu, besteak beste, XV. mendeko inkunabileak (inprenta sortu zenetik XVI. mendearen hasierara arte egindako argitalpenak) eta XVI., XVII. eta XVIII. mendeko liburuak aurki ditza-kegu. Garai bateko eta gaur egungo aldizkariak ere ugariak dira. Hemerroteka eta egungo historiako artxibategia da beneditarren liburutegia.

Panfletuak, kartelak, pegatinak... denetarik ditu beneditarrak. "Espetxean dauden eta izan diren argazkiak ere bilduta dauzkat, kartel batetik moztuta, herrika antolatuta. "ETako argazkiak!" esan zuen guardia zibil batek. Espetxean zeudenak zirela esan nien, hura ere historia zela esan nien", gaineratu du beneditarrak.

Artxibozain lanean bokazio-rik gabe hasi nintzen, baina denborarekin gustua hartzen joan nintzen.

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jateetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
menua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA



Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATEETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Kilometro Kilometro, pausoz pauso

Euskararen alde Korrika



*Martxoaren 15ean, gaueko 9:45etan
iritsiko da Goierrira 14. Korrika*

AEK-k 1980. urtean lehenengo aldiz antolatu zuen euskararen aldeko lasterkaldia: Korrika. Afari batetik ateratako ideia bileretan borobilduz, euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien egunero-ko lana indartzeko dirua biltzea dira Ko-

rrikaren helburuak. 'Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!' lelopean, 14. edizioa ospatuko da aurten Korrika, eta Goierrira, martxoaren 15ean, gaueko 21:30ak aldera sartuko da Otzaurtetik barrena. Aurtengo omenduak, Andolin Eguzkitza, eta oro har, euskaldunberriak izango dira.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa:
auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Euskal Herrian askotan gertatu ohi izan den bezala, afari baten bueltan sortu zen Korrika antolatzearen ideia. 1980. urteaz ari gara hizketan. 'Bai Euskarari' kanpainak izan berri zuen arrakasta ikusita eta AEK-k bizi zuen egoera ekonomiko larriak bultzatuta, euskararen alde egiteko eta dirua biltzeko formula berria asmatu zen: etapaka joango litzatekeen lasterketa bat, lekuko bat izatea lotura, erreleboaren sinbolo, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko zuena. Hau da, euskaldun guztiak bilduko dituen ekintza, ahalik eta azkarren, euskaraz bizitzeko bide eginaz: Korrika.

1980. urtean, azaroaren 29tik abenduaren 7ra, Oñatitik Bilbora egin zen lehenengo Korrika. Joxe Mari Satrustegi euskaltzain nafarrak eraman zuen lehenengo lekukoa. 'Zuk ere esan bai euskarari' izan zuen leloa. 40.000 lagunetik gora izan ziren euskararen aldeko korrikalariak. Goierriin, lekuko eramale bat aipatzearen, Aita Joxemiel Barandiaran. 91 urte zituen eta Lazkaon eraman zuen lekukoa. Antolatzaileek gogora-



Joxemiel Barandiaran ia mende beteko korrikalaria. 1980. urteko Korrikan, Lazkaon, lekukoa eramaten.

tzen dutenez, kezkatu agertu zen Aita Barandiaran, polikiagi ote zihoan galdetuz. Sei minutuan burutu zuen bere kilometroa.

Harrezkeroztik makina bat euri egin du. Makina bat Korrika egin dira, makina bat kilometro, makina bat etapa... Guztiak gogoratzea zaila da baina hasierako urte haietatik gaur egunera arte antolaketa lanean aritu izan den Maixabel Zuaitz,

AEK-ko irakaslearengana jo dugu Goierri bertako kontuak zehatzago jakite aldera. "1980. urtean lehenengo aldiz Korrika antolatu zenean, Goierriko Euskal Esko-

laren izenean antolatu zen. AEK ere GEEren barruan zegoen. Gerora, HABE eta AEKren arteko zatiketa gertatu zenean, orduan, AEK-k hartu zuen beregain Korri-

'Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!'

Martxoaren 10ean Orreagan (Nafarroa) hasi eta martxoaren 20an, Bilbon amaituko da aurtengo euskararen aldeko lasterkaldia, 'Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!' leloarekin. 10 egunetan, 2.150 Km. egingo dira Euskal Herrian zehar.

Andolin Eguzkitza eta orokorrean, euskaldunberriak omendu nahi ditu aurtengo Korrikak. "Euskarak lortu badu hizkuntza bizi eta moderno moduan irautea, euren burua euskalduntzea, 'euskaldun berri' izatea erabaki zuten/duten hainbat eta hainbat euskal herritar zein kanpotarri esker izan da. Eta horiek guztiak kontuan harturik ere, Korrika 14k omenaldi berezia egin nahi dio orain dela gutxi utzi gaituen Andolin Eguzkitzari, milaka eta milaka horien sinbolotzat hartu genezakeelako", diote Korrikako antolatzaileek.

Oraindik euskara ikasi ez dutenei dei berezia egin nahi die Korrika 14k. "Izan ere, hizkuntzaren transmisioan gure seme-alabak euskaraz eskolaratzea bezain garrantzitsua delako, helduak ere euskalduntzea. Euskaraz bizi ahal izateko, euskaraz jardun behar dugulako gure bizitzako esparru guztietan eta horretarako geu guztion konpromisoa behar dugulako. Ezibesteko dugu, XXI. mende hasiera honetan helduak euskalduntzea".



Aita Joxemiel
Barandiaranek,
91 urterekin,
Lazkaon eraman
zuen lekukoa,
lehenengo
edizioan.
6 minutuan egin
zuen bere
kilometroa.

karen antolaketa", gogoratu du Zuaitzek.

Kontzientzia handiagoa

Jende askok parte hartzen zuen bai antolaketa eta bai korrikan. "Garai hartan ez zegoen antolaketaerako jende bila ibili beharrik, jendea bera gerturatzen zen. Nik uste dut lehen kontzientzia gehiago zegoela. Gaur egun komunikabideetatik boom handiago ematen du baina hasierako urteetan ez zen horrelakorik. Herriak anto-



Aurten ere, duela bi urte bezala, gauez korrika egin beharko dute Goierriko euskaltzaleek.

latzen zuen ekintza zenez, euskaltzaleek parte hartzen zuten", gaineratu du beasaindarak.

Gaur egun, kilometroak diru kopuru baten truke erosten badira ere, hasierako edizioetan, dirulaguntza modura ematen zen dirua. "Orduan korrikalariak aur-

kitu behar izaten genituen. Korrikalari onak aurkitzen genituen. Gaur egun, kilometroak erosten dituztenek,

beraien ordezkariak bidaltzen dituzte. Alde horretatik errazagoa da", dio AEK-ko irakasleak.

Korrika 14: Kilometroaz kilometro Goierriin barrena

Nafarroatik, Otzaurtetik, iritsiko da martxoaren 15ean, aurtengo edizioaren Korrika. Euskararen aldeko 52 kilometro osatuko dira Goierriin. Jarraian duzue, herriz herri, aurreikusitako ordutegia.

Zegama: Otzaurte gaina	21:46:31
Zegama:	22:38:31
Segura:	23:09:43
Idiazabal: Futbol zelai parean	23:41:34
Olaberría:	23:57:10
Beasain: Kiroldegia	0:15:22
Lazkao: Senpere	0:37:28
Ordizia: Malkaskotik barrena:	0:55:40
Itsasondo:	1:28:10
Legorreta:	1:41:49



Bitxikeriak

Hainbeste urtetan, hainbeste ediziotan eta hainbeste kilometrotan, hainbeste jenderen artean, bitxikeria bat baino gertatu-ko zen. Maixabel Zuaitz berak, hiru gogoratu dizki-gu.

Zegama aldean, korrikalari gaztetxo bat, lekuko eramalea bera, uste baino hobeto aurkitu eta uste baino urrutirago joan zen korrikan. Halako batean kontuak, bere burua baka-rik sentitu zuenean. Atzetik zihoan auto bateko ezagunen batek hartu omen zuen.

Korrikaren lehenengo urteetan ormaiztegiarrei gertatu zitzaiena ere ez da ahaztekoa: "Zumarragatik zetorren korrika, gaueko ordu txikitan. Jendea hain berandura arte edukitze-ko, kontzertua antolatu zuten pilotalekuan. Oso eguraldi txarra zegoen, elurra eta izotza. Eta korrikalariak korrika etorri zi- ren eta ormaiztegiarrak konturatzerako, Korrika herritik pasatu zen".

Azkena, berriz, nahi baino nahigabe gehiago sortu zuen kontua gogoratu digu AEK-ko irakasleak: "Lazkaoko klausurako moja mexikar batek, AEK-ko ikaslea bera, lekukoa eram- zuen eta nahikoa is- kanbila sortu zen. Erroma- ra iritsi omen zen albis- tea".

Korrikaren ezaugarri nagusienak, bi elementu dira: eskuz esku pasatzen den lekukoa eta kilometroa adierazten duen petoa.

Lekukoa

Txandakatzeko lekukoa, bata besteari ematekoa, barruan euskararen mezua daramana. Horixe da Korrikaren lekukoa. Lehenengo ediziorako figura, Remigio Mendiburu eskultoreak egin zuen. Lehenengo urte hartako mezua, Rikardo Arregirena zen.


Urte batzuk berandua- go, errepika, Gorriti eskul- turgileak egin zuen. Hori bai, mezutxo bat erantsi zion: 'katea ez baita eten'.

Lekukoaren kontura ere badira bitxikeriak. Istri- puak, urratzeak, galtzeak... Dena den, iritsi, beti iritsi da helmugaraino.

Petoa

Korrikalariaren uniforme- ko elementu bakar eta be- reizlea hauxe da: petoa. Lau informazio mota em- aten ditu petoak:

Batetik, Korrikaren zenbatgarren edizioa den. Bestetik, Korrika babesten duen enpresaren izena. Hi- rugarrenik, Korrikak edizio bakoitzean zabaldu nahi duen mezua. Eta azkenik,



edizio bakoitzeko zenbat- garren kilometroan gabil- tzan adierazten duen zen- bakia.

Urteak ere ez dira alpe- rrik pasatu eta modaren

Lekukoa eta petoa

garapenaren lekuko ere izan da Korrikaren petoa. Katekorratzarekin lotzen zen txuri-beltzeko dortsala izatetik, peto koloretsueta- raino.




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.



zuhaizki
S. A.
Zurgindegia

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
 Cuatrovientos Industrialdea, 1
 Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Hegats-igeriketa:
izurdeak bezala
igeri



Odei Maiz / Aitor Urkiola

Ordiziako nazioarteko V. hegats-igeriketako txapelketa otsailaren 26an, larunbata, jokatu da Ordiziako Majori kiroldegian. Bertan Euskal Herriko eta Espainiako igerilari onenez gain, Europako onentsuenek ere parte hartuko dute. Bertako igerilariantzat mai-

la goreneko kirolariak bertatik bertara ikusteko aukera izaten da. Hegats-igeriketa gertuagotik ezagutzeko, Odei Maiz eta Aitor Urkiola igerilari ordiziarrengana jo dugu. Biak izan ziren iazko denboraldian Espainiako txapelketetan posturik onenak lortu zituzten goierritarak.



biok

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala



Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Hegats-igeriketak izurdeen igeri egiteko modua imitatzeko duela esaten da. Bi oinak elkartuta aleta edo hegats bakarrekin aritzen dira. Eskuak, bata bestearen gainean, aurrera luzatuta eramaten dituzte. Burua beso artean eramaten dute eta arnasketarako buzeo ekipaia izaten dute. Beso, gorputz eta hankekin uhin-mugimendu progresiboak egin ez egiten dute igeri. Uhin anplitudea handituz doa, besoetan gutxienekoa delarik eta oinetan gehiengoa.

Hegats igeriketan 3 modalitate daude: eskafandra, ur azalekoa eta apnea. Eskafandran oxigeno botilarekin igeri egiten da, ur azalekoan arnasa hartzeko tutuarekin eta apnean ezer gabe, hau da arnasarik hartu gabe eta 50 metro arteko proba izaten da. Hegatsak gogoragoak eta bigunagoak izaten dira, probaren arabera; gogorrekin indar gehiago egin behar da, baina, abiadura handiagoa hartzen da.

Bi dominadun

Iazko Espainiako hegats-igeriketa txapelketan Odei Maizek brontzezko domina lortu zuen eskafandra 100m-tan eta Aitor Urkiolak zilarrezkoa apnea 50m-tan. Hegats-igeriketa ez da oso kirol ezaguna, baina, maila onean ari dira ordiziarrak, "Espainia mailan puntan gabilta, bai Ordiziako, baita Euskal Herriko igerilariak. Baina Europako mailarekin alderatuz, oraindik ere asko

dugu hobetzeko. Mundu mailan errusiarrak eta txinatarrek dira mailarik altuenekoak", dio Odeik.

Ordizian igeriketarako ohitura handia dagoenez,

Goizeko 10etan hasita: 50m ur azpian, 800m ur azalean, 100m ur azalean eta 400m ur azpian probak izango dira, arratsaldeko 4,30etatik aurrera 50m ur azalean, 40m ur azalean, 100m ur azpian eta 4x100m erreleboak izango dira. Lehia amaitu eta igerilari bakoitzak txapelketa osoan zehar lortutako puntuak zenbaitu ondoren, hiru neska eta hiru mutil onenek ga-

raikurrak jasoko dituzte. Txapela eramateko lehia Estonia, Suedia, Italia, Alemania, Frantzia, Polonia, Ukraina eta Egiptoko igerilariak arituko dira. Hauen artean munduko txapelketetan dominak lortutako hainbat igerilari. Espainiako hegats-igerilari onenak ere bertan izango dira Euskal Herriko urpeko-talde guztietako ordezkariekin batera. Euskaldu-

nen artean iaz lehiaketa irabazi zuten Juanjo Iturralde eta Amaia Lerga tafallarrak nabarmentzen dira.

Igeriketa espezialitate honetan Euskal Herrian egiten den txapelketa bakarra da Majori kiroldegian jokatzeko den opena, eta estatuan mailan jokatzeko den garrantzitsuenak. Urpeko Ihardunen Munduko Konfederazioaren (C.M.A.S.) egutegiaren barnean dago.



Otsailaren 26an, Ordiziako nazioarteko V. hegats-igeriketa txapelketa

urpekoa egiten duten asko ohiko igeriketatik datoz, baina ez derrigorrez. Aitor, adibidez, zuzenean hasi zen hegats-igeriketa egiten. "Hau dut laugarren urtea. Aurretik igeriketan aritu gabekoa naiz, ikastaro bat egin nuen, gustatu zitzaidan eta aurrera jarraitu nuen". Odei, berriz, 17 urtera arte igeriketa taldean aritu zen, baina, sorbaldako lesio bat medio utzi beharra izan zuen. Orduan hasi zen urpekoen taldean entrenatzen. "Hegats-igeriketan besoekin igeri egiten ez denez, lesioa izan arren, kirol

honetan jarraitu ahal dut. Igeri egiteko oso modu desberdinak dira. Adibidez, igeriketan besoak nekatzen zaizkizunean estila pixka bat aldatu dezakezu eta hankekin indar gehiago egin. Hegatsekin, berriz, hanketatik leher egiten baduzu ez duzu zer eginik. Kirol honetan hasi berriak direnak, hankak nekatutakoa hasten dira besoekin igeri egiten, baina, denbora galtzea besterik ez da".

Igerilekuan egiteaz gain, uda partean zeharkaldiak egiten dituzte. Hauek erreketan eta itsaso zabalean

Igerilekuan aritzeaz gain, uda partean zeharkaldiak egiten dituzte ibaietan eta itsasoan.

izaten dira eta, igerilekutik, erabat aldatzen da igeri egiteko modua. "Igerilekuan biraketak egin behar dira eta zeharkaldietan beti aurrerantz joan behar zara. Ibaietan korronteek zer ikusi handia dute. Ibaia bera ezagutu eta nondik joan behar zaren jakitea abantaila handia da", argitu digu Aitorrek. "Gainera egiten dugun zeharkaldirik laburrena 5 kilometro ingurukoa da eta igerilekuko probarik luzee-na 1.500 metrokoa. Askok aldatzen da. Igerilarien maila ere asko jaisten da, ez baititugu zeharkaldiak bereziki prestatzen eta igerilekuan bakarrik entrenatzen gara", gehitu du Odeik.

Entrenamenduak

Astean bost egunetan entrenatzen dute ordu eta erdiz, lehenengo ordu erdia igerian egiten dute berotzeko eta igerilekua ixtean hasten dira hegatsekin entrenatzen, gaueko 10ak arte. Abiadura eta erresistentzia lantzen dute. "Lehiaketetan igerilari bakoitzak 2, 3 edo 4 probetan parte har dezake. Urte guztian zehar proba desberdinetan aritzen gara eta Espainiako txapelketetan hoberen moldatzen garen horretan parte hartzen dugu. Azken finean denboraldia eta entrenamenduak Espainiako txapelketara ahalik eta sasoi hoberenean iristeko bideratzen ditugu".

Denboraldia

Denboraldia azaro bukaera inguruan hasten dute eta uztailaren erdi aldera amaitu. "Luze egiten da baina hasiera lasai-lasai egiten dugu". Neguko Espainiako txapelketak martxoan iza-



ten dira eta udakoak uztailan. Aurten iazkoa hobetzea izango dute helburu, "denbora hobea egin nahi genuke, baina postuak aurreratzea zaila izango da. Iaz juniorreko lehenengo urtean nengoen, maila oneko zenbaitek ez zuen parte hartu eta aurten bertan izango dira", dio Aitor Urkiolak. Odeik berriz 3. postua eskuratu zuen helduen mailan, eta aurten zailagoa ikusten du. Arrasaten ari da ikasten eta bertan bakarrik entrenatzen da. "Hasieran ez nuen entrenatzeko aukerarik eta azkenean lortu nuen eguerdiko 1,30etatik 2,30etara kale bat niretzat izatea. Bertan aritzen naiz bakar-bakarrik. Hori asko nabari da, nekatzen zarenean, ahalegin handiagoa eginarazteko ez daukazu inor gainean".



Kirol ikusgarria

Ohiko igeriketarekin alderatuta, hegatsekin abiadura handiagoa hartzen da eta horrek kirola ikusgarriagoa egiten du. "Aurten antolatu dugun txapelketan, gainera, oso maila oneko igerilariak datoz, eta benetan ikustekoa izango da. Nahiz eta beraien aurka zereginik ez izan, guri ere ondo etorriko zaigu, teknika desberdinak ikasteko".


Kanpotarrak ere gustura etortzen dira, lehiaketa bukatutakoan denak sagardotegira joaten baitira.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Asier Larraz



Karmele Iturbe psikologoa eta psikoterapeuta da. Gestalt Psikoterapian formatua Donostian eta Buenos Airesen. Esperientzia dauka buru nahaste arazoetan famili terapiako psikologo bezala (Buenos Airesen) eta hezitzaile bezala. Sexu hezkuntzan eta gorputzeko atalen munduan ere ikasia da.

• Noiz egin bisita?

Uste dut hau oso garrantzitsua dela. Izan ere, gure barruan badago zerbait, laguntza behar dugula eta laguntza hori badagoela esaten diguna. Errespetu handiz hartzen dut, pertsona batek lehen aldiz txanda eskatzeko hots egiten didanean.

Momentu hori iritsi egiten da eta nola jakin gabe, dena gaizki doala pentsatu ondoren, edo arazo nabarmenik eduki gabe, zerbait falta zaizula sentitzea, edo besterik gabe zure bizitzan aldaketaren bat edukitzea sumatzen duzula, eta hainbat galdera egiten diozunean zeure buruari: zer nahi dut? Zergatik niri? Zein zentzu dauka nire bizitzak?

• Zertarako gerturatu?

Terapian ohartzen joaten zara zeure fantasiek zure bizitzan eragina daukatela, oztopo bat direla. Zure aurreiritziak, zalantzak, beldurrak alde batera utzitakoan hartu ahal izango duzu zure bizitza askatasunaz eta zaren bezala sentituz.

• Uste al duzu zoriontasunerako pilularik existitzen dela?

Ez. Farmazia industriaren gezur handi bat dela pentsatzen dut, errespetu falta handi bat. Bizitza diagnostiko bat baino gehiago da, bizitza egunerokoan dago, maitasunean, minean eta hazten joateko daukagun arduran. Noiztik da hobe minik ez sentitzea, sentitzea baino? Ez al gara joango arriskurik gabeko bizitza bat dagoela sinisterra, non bizitza erraza eta erosoak, presioa, nora eza, erronkak ordezkatzakeen? Oroitzen naiz nola lagun batek paperezko mundu batetaz hitz egiten zidanean.

• Uste al duzu ez ginatekeela sekula medikatu beharko?

Noski ezetz, batzutan asko laguntzen du eta beharrezkoa da, nik irizpiderik gabeko gehiegikeria kritikatzan dut.

• Txanda hartu aurretik norbaitek galderaren bat egiteko balu, posible al luke zuri deitzea?

Noski, zalantzarik gabe.

• Entzun dugu proiektu bat gauzatzen ari zarela Gurasoen Eskola bat eratzeke, zertan datza?

Bai horretan nago eta ilusio handiarekin gainera, apirilean hasiko naiz Beasainen eta hurrengo kurtsoan ere proiektuari jarraipena emateko asmoarekin. Ideia nire esperientzia propioagatik joan zen garatzen eta umeen terapeuta bezala, gaztetxoekin eta beraien gurasoekin nituen zailtasunak ikusita. Beraiei esker ikasi dut zenbait sentimendu: gure semeek gu baztertzeko beldurra izatea, kulpasentimendua, nola uztartu sendotasuna, maitasuna eta autoritatea beharrezkoak direla guztion arteko harremanak aberasgarriak eta osasuntsuak izan daitezen. Ondorengo atalak landuko genituzke: gurasoen betebeharrak, tutoreak, autoritate eta maitasunaren arteko mugak, zein den arrunta, autonomia, dependentzia, sexualitatea, droga kontsumoa eta abar.

• Eta Erlaxazio taldea?

Bere gorputza eta bere beharrak entzun nahi dituen edonori irekia dago. Musikarekin eta isiltasunarekin egingo da lana. Geldi egonean eta mugimenduan gorputza eta bere sententzioak esnatzeko helburuarekin, atseden hartu ahal izateko edo aktibatzeke.

Karmele Iturbe Eguren

PSIKOLOGOA • PSIKOTERAPEUTA

Labeaga 66, tarteko oin A. 20700 URRETXU • Tel.: 943 725 566 / 676 300 582

Atzerriko langileak normalizatzeko prozesua

Egoera normalizatu gabe duten etorkinak buru belarri murgilduta dabilta aspaldian, beraien egoera normalizatzeko ahaleginean. Langileak eta enpresariak egin beharreko ahalegina da hori.

Pasaiko Itsasoko Institutu Sozialera (Marinos kalea, 1) joan beharko dira enpresariak, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 7etatik, behar diren paper guztiak beteta.

Goierriko Gurutze Gorrian aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Amaia Fabianek eta berak azaldu dizkigu, etorkinek beraien erregulatzeko bete behar dituzten baldintzen berri.

Lehenik, etorkin bakoitzak honako paperak eskuan izan beharko ditu: 2004ko abuztuaren 7tik Espainiar Estatuko edozein herritan errolatua egotea; jatorriko herrialdean aurrekari penalik ez duela ziurtatzen duen agiria, behar bezala zigilatua, balidatua eta itzulia; pasaportearen indarrean; eta hala behar izanez gero, titulazio homologatua edukitzea, edo

lanposturako gaitasuna duela egiaztatzea.

Enpresariak berak ere, beste hainbat paper eta ziurtagiri prestatu beharko dizkio etorkinari:

Gutxienez, 6 hilabete-ko lan kontratua edo lanaldi murriztua izanez gero, urtebetekoa. Dena den, salbuespenak ere badira: ostalaritzan eta eraikuntzan, ez da derrigorrezkoa, 6 hilabete-ko epe hori segidako izatea (urtebeteko epean). Nekazaritzan, lan kontratuaren gutxieneko epea, 3 hilabete-koa da. Etxeko lanetan aritzen denak, malguagoa du: astean gutxienez 30 orduko lanaldia izatea, etxe batean baino gehiagotan arituz gero.

Gizarte Segurantzaren izena emanda eta ordain-



Goierriko Gurutze Gorrian aholkularitza zerbitzua eskaintzen da.

ketak egunean dituela ziurtatzen duen agiria, IFK-CIFa, kontratazio ahalmena duen eskritura publikoa eta NAN aurkeztu beharko dituzte enpresariak. Partikularrek, berriz, NAN eta errenta aitortpena azaldu behar ditu. Autonomoek, azkenik, NAN edo

IFK-CIF eta Errenta aitortpena.

Behin dokumentazio guztia aurkeztuta, Lan Ministerioak jakinaraziko dio enpresariari eta langileari, lan egiteko baimena edo ukazioa.

Onespenaren kasuan, Atzerriar Nortasun Txartela lortzea izango da etorkinen hurrengo pausoa. Horretarako, onespene eskutitza, eskaera orria, ordaindutako zergen agiria, lau argazki, Gizarte Aseguruan alta emanda dagoela ziurtatzen duen ziurtagiria eta indarrean dagoen pasaportearen aurkeztu beharko ditu, Polizia komisarian.

Pasaiko Itsasoko Institutu Sozialera eraman behar dira paper guztiak, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 7etara.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbaki: E-2044
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

MULTIOPTICAS

SEIHILEKO PACKA

**BEROTU ZAITEZ
SEIHILEKOA EROSITA
OPARI EGITEN
DIZUGUN
MANTA
ZORAGARRIAREKIN**

R.P.S. N° 190/04 I.L.G.



**...6 hilabete ERABILTZEN
OSO EROSO
KALITATEZKO IKUSMENAREKIN**



graduazio esferikoa -8 +6

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

ETXEBIZITZAK

salgai

Ataunen, etxebizitza berriua salgai. 2 logela, egongela, sukaldeta, komuna eta bajera. 108.193 euro. 650399303

Itsasondoko San Juan auzoan, etxebizitza salgai. 680449272.

Ataunen, oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldeta, egongela, ganbara eta garajea. 666118904.

Ormaiztegin, oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela, 3 logela, bainugela eta egongela ederra. Berogailuarekin. 2 garaje eta 100 m²ko baratza. 635729027.

Ormaztegin, erdigunean, etxebizitza salgai. Garajea eta ganbara. 943883209.

errentan eman

Beasaingo erdigunean pisua alokatzen da. Guztiz hornitua. 659644228.

Mutiloan baserri dotorea errentan ematen da. Landetxe bezala antolatua. Lanerako go-goia duen bikote edo sukaldarientzat oso egokia. Terreno asko, aparteko pabiloia, zaldiak... Edozertarako aukera asko. Imanol. 679117116.

Nafarroan, Urbasa ondoan, etxea alokatzen da. 10 lagun edo gehiagorentzako. Ingurune berdea, aparkalekua, barbakoa, txokoa, egongela. 948539381 - 616537765.

Conil (Cadiz). Apartamentua alokatzen dut, Bateles hondartzaren ondoan. Guztiz hornitua. 680442668.

Salou. Apartamentua alokatzen dut, Jaime I etorbidean, Novelty eraikinean. Guztiz hornitua. Aire egokitua, igerilekua, garajea eta terraza handia. 629989899 - 943814238.

errentan hartu

Beasain edo inguruan etxebizitza alokatu nahi dugu. 629378250.

Beasain, Ordizia edo **Lazkaon** etxebizitza errentan hartuko luke Goierriko bikote gazte batek. 657796079 - 653738569.

PABILOIAK

salgai-errentan

Beasaingo Ezkiaga etorbidean, 160 m² inguruko lokala saldu edo alokatzen da. Prezio onean. 619405190.

Ormaiztegin, pabiloi industria alokatu edo salduko nuke. 90 m². Komuna, dutxa eta bulegoarekin egokitua. 943884768. 21:00etatik aurrera deitu.

GARAJEAK

errentan eman

Beasaingo Dulce Maria Loizaz etxaldean garajea alokatzen da. 943187768. 20:00etatik aurrera deitu.

Beasaingo Garmendia Otola kalean, garaje itxia alokatzen da. 943800225.

Ordizian, erdigunean, garaje itxia alokatzen da. 635700560.

LURSAILA

erosi

Goierriin, 5.000 m² arteko lursaila erosiko nuke. 616698236.

IBILGAILUAK

salgai

Opel Combo 1.7 diesela salgai. SS-BG. 91.000 km. 3.000 euro. 635727241.

Opel Vectra 2.0 GT salgai. 115 zaldi. Egoera onean. Aire egokitua, engantxea eta abarrek. 617128654.

Peugeot 306 salgai. Diesela. 943800054. 679018184.

Ford Fiesta 1.1 salgai. 3 ate. B-FY. Oso ondo dabil. 350 euro bakarrik. 943475264.

Opel Corsa salgai. 2000 edizioa. 5 atekoa. 55.000 km. Oso egoera onean. 639962850.

Peugeot 206 GTI 2.0 salgai. 2001. urtekoa. Egoera onean. 660024835.

Volkswagen Golf IV salgai. 1.8 turbo GTI, edizio berezia, 2001 urtekoa, 17" llantak, 92.500 km. Egoera oso onean. 696415299 (Jon).

Citroen Saxo 1.6i salgai. 1999ekoa. Extrak. 606206157 - 943180376.

Peugeot 309 salgai. SS-AG. 943890237 - 696273435.



SUTAN TXIMINIAK

EGUR BARBAKOAK

TXIMINIA ELEKTRIKOAK
(Irteerarik gabe)

ESTALDURAK
(Harlanduak-simulazioa)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETU

665 737 302

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2004-2005
IKASTURTEA

INFORMATIKA-GELA

✓ Ikastaroak

- Ingelera
- Word, acces, excel
- mekanografia

✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Goierritarra

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

BESTELAKOAK

errentan eman

Estatu barneko eta nazioar-
teko salgaien garraiorako bai-
mena alokatzen dut.
658703442.

erosi

**Hezetasuna kentzeko tres-
na** erosiko nuke. 629291255.
**Emakumezkoentzako bizi-
kleta** erosiko nuke.
635708314.

opari

Egurrezko mahaiak, ban-
kuak, aulkiak hartuko genituz-
ke txabola hornitzeko.
943723504.

salgai

Erremolkea salgai,
1750x1200, 500 kilorentzako.
676882842.

Solarium horizontala salgai.
Bigarren eskukoa. Egoera one-
an. 943162256 (Klaude).

Labe profesionala salgai, Fa-
gor markakoa. Tentsio sarrera
380.3 fase. Potentzia: 9.000 w.
943888074. Egurdian edo
iluntzean deitu.

Argazki makina salgai: Ca-
non EOS 300 + 28-90 mm Ca-
non AF objetiboa + 80-200
mm Canon AF objetiboa +
100-400 mm Cosina AF objeti-
boa (Canonentzat baliogarria)
+ Flasa. Poltsa eta filtro pare
bat opari. Objektiboak bakarrik
erosteko aukera, txikiak izan
ezik. Oso ondo zainduak. 450
euro. 647084564.

Idaz makina salgai, Olivetti
markakoa. Egoera onean. 30
euro. 943084219.

Haritzezko armairua salgai.
305 cm x 215 cm x 45 cm.
2.200 euro. 19:00etatik
21:00etara deitu. 649426761.

Ura berotzeko 2 berogailu
salgai, 6 eta 11 litrokoak. Oso
egoera onean. 670422051.

Administratibo laguntzaile
ikastoroko kontratua saldu
nahi nuke, Ados akademiakoa.
1.490 euro kostatu zena,
990ean salduko nuke.
679368886.

Play Station 2 berria, me-
mory card eta jokoa salgai.
Prezio ezin hobea: 110 euro.
610036043.

Elurretarako 4 kubieta
salgai. 195-15 4 x 4.
686077121. 18:00etatik aurre-
ra deitu.

Freestyle-pro snowboard,
umeentzako tabla salgai. 132
zm. Egoera onean. Prezio inte-
resgarria. 616808256.

Sukaldea salgai, elektrotresna
eta guzti. Altzairuzko kanpaia
eta marmolezko enzimera ere
bai. Gutxi erabiliak.
660381097.

NEGOZIOAK

traspasatu

Harategia traspasatzen da
Bergaran, 27.000 eurotan. Edo
errentan, 50 euro. 943161990.

ANIMALIAK

erosi

Ardikupoak, 10 bat, erosiko
nituzke. 943806319.

salgai

Behi kupoa salgai.
943806319.

Bihon Maltes arrazako 6 hi-
labeteko txakurkumea salgai.
Arra. 420 euro. 630614924.

AURKITUTAKO OBJEKTUAK

Urrezko eskumuturrekoa,
umeena, aurkitu dugu Olabe-
rrin. Otsailaren 6an.
943888163.

LANA

eskaerak

Idiazabalen emakumea
behar da goizez 2 haur, noize-
an behin, zaintzeko.
635729027.

Erretegian lana egiteko
emakumezkoa behar da. Egu-
nero, larunbata izan ezik.
615700408.

**Astebukaerretarako zerbi-
tzaria** behar da. Euskalduna.
Esperientzia badu hobe.
615745924.

Neska bat behar da astean 2
egunetan 8 ordu lan egiteko,
2 ume zaindu eta etxeko la-
nak egiteko. 665722354.

Zerbitzaria behar da aste-
buruetan. 629160500 -
627122097.

Emakumea behar da Beasai-
nen etxeko lanak egin eta
ume bat zaintzeko, egun osoz.
637721967.

eskaintzak

19 urteko mutila, esperien-
tziaduna, prest dago tabernan
lan egiteko. 662102271.

**Emakumezko ekuatoria-
rra**, esperientzia eta errefe-
rentziak dituena, prest dago
etxeko lanak egin edo atarie-
tako garbiketarako egiteko. Bea-
sain, Ordizia, Itsasondo, Lego-
rra inguruan. 630250016.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



INSTALATZAILE OFIZIALA



LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82



Zeraingo eskolakoak 1970 inguruan

Mari Jose Zurutuzak utzi digun argazkian Zeraingo eskolako ikasleak eta irakaslea ageri dira, 1969-70 urte inguruan. Denen izanak jakiterik izan ez dugunez, izenik gabe doaz oraingoan.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

GOIKLINIK
osasun zentroa

Andrea Mari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN

- Dietetika eta Nutrizioa Tel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizitatea Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta Logopedia Tel.: 616 24 15 26
- Podologia Tel.: 635 00 66 30

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

A photograph of the exterior of the Barandiaran Zeramikak storefront at night. The building has large glass windows and a prominent sign that reads "BARANDIARAN zeramikak" in blue neon. Below the main sign, there are smaller signs for "ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA".

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

elektragailuak

Elektragailuetan azken berrikuntzak

Induziozko plaka bitrozeramikoak





Bakarrak garbitzen diren labe pirolitikoak

Arropa garbigailu elektrikoak



0°-ko hozkailuak

Ontzi garbigailu isilak



Neurri guztietako izozkailuak

Gure izatea, kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik